

2015-12-09

Sareak banandutako teknozaleak batu ditugu aurtengo egirataua ixteko. Kabi@ko era klasikoan egin dugu gainera, Tabu hitzaldiekin: hizlariak ezin izan dute 'eusk***' hitza erabili paper bola zaparrada baten zigorpean.

[Sharetu](#)ko Oscarrek herritarrek beraiek herrietako gaieitaz mintzatzeko sare soziala aurkeztu digu. Erramintaren funtzionamentua azaldu digu, udalei eta herritarrei zuzendua. Geolokalizazioa, deszentralizatua... oso ideia potentea!

Tabu hitzaldiak [@sharetu_eus](#)|koek hasi dituzte [#50da @durangokoazoka pic.twitter.com/Blc4T9TYz2](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 8, 2015](#)

[Kaixomaitia.eus](#) ekarri diguta Kabi@ gunera Iñigok eta Aidak. Harreman berriak egiteko webgunearen berritasunak aurkeztu dizkigute, besteak beste, Zirri-Mirri (Tinder-en inspiratutako funtzionalitatea), argazki bisualizazio aukerak berriak eta harpidetzarako formula berritzaileak.

[#Kaixomaitia](#) berria aurkezten [@iarandia @kabiadurango #TabuHitzaldiak https://t.co/kIbaXOCTP7 cc/@Sindikal_ero pic.twitter.com/wX6AAYmgRg](#)

— birasuegi #Koop #ESE (@birasuegi) [December 8, 2015](#)

Segidan, Joxe itzuli da Kabi@ra [#euskalgif](#) memearen inguruko azalpenak ematera. Euskal memeen beharra azpimarratu du eta bere webgunean jarritako [Tumbler-ean](#) erraztasun guztiak jarri ditu edonork bere [#euskalgif](#)-ak sortu eta sareratu ditzan.

[.@joxe](#)|k [#euskalgif](#) aipatuta 4. zaparrada [#50da pic.twitter.com/RExnMpEDUb](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 8, 2015](#)

[Guifi.net](#) sare libre, ireki eta neutralaz hitz egin dugu Mainerrek. Posible dugu gure herrian internet paralelo hontara antena txiki eta merke batekin konektatzea. Aplikazio posiblei buruz hitz egin digu eta parte-hartzera gonbidatu.

Jarraian [@guifieh](#) txanda. Sareak ere, libre! [#50da @kabiadurango pic.twitter.com/r8N6ncglpy](#)

✘ — Joxe Rojas (@joxe) [December 8, 2015](#) *2015-12-09*

Bukatzeko, [Igerrak](#), Instagram komunitateak, bere azken ekimenen berri eman digu. Egunero, 100-200 argazki igotzen dituen euskal komunitateak harro eman du antolatzen dituen bilera eta lehiaketan berri, adibidez, Durangoko azokaren inguruan antolatutakoa.

Instagramerako [@igerrak](#) orain euren burua aurkezten [@kabiadurango #50da](#)
pic.twitter.com/TpNNBqgHzB

— Joxe Rojas (@joxe) [December 8, 2015](#)

Balorazioa ona aurtengo Kabi@rena: azokan zentralitatea irabazi dugu, baita bisitari kopurua igo ere. Proiektu interesgarriak aurkeztu dira bertan eta, batez ere, talde eta komunitate ezberdinei plazaratzeko lekua eskaini diegu. Hurrengo urtean Kabi@ gehiago!

[#50DA](#) n [@kabiadurango](#) ere [#5000baietz!](#) pic.twitter.com/amj2DLEoMi

— .EUS (@puntueus) [December 8, 2015](#)

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)